

Gure proiektuak zerbitzuaren erabiltzaileei aukera desberdinetarako outfit-ak sortzen lagunduko die. Horretarako APP bat sortuko dugu eta honi esker, alde batetik, gure bezeroek dituzten jantzietan oinarrituz, outfit desberdinak eskeiniko dizkiegu eta bestetik, zerotik outfit-ak sortzeko aukera emango dugu. Zalantzak dituzten pertsonei beren outfit-ak azkar eta eraginkortasunez aukeratzen lagunduko diegu. Era berean, gure markako produktuak eta lankidetzan arituko garen mikroenpresen markak erosteko aukera izango dute. Produktu horiek guztiak material biodegradagarriak eginda egongo dira, jendearen kontsumo arduratsua sustatzeko. Atal batean, bezeroek arropa alokatu ahal izango dute, beste bezero batzuek aldi baterako maileguan har dezaten. APP hau publiko osora bideratuta doa baino, bereziki 15-24 bitarteko gazteengana zuzendu nahi gara.

